



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/01/23 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Eurne Huesa (Landarlan)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Joseba Aranburu (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Iñaki Dubreuil (PSE)
Mila Sukia (Ordizia Orain)
Adur Ezenarro (Bildu)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Onartutako Sasieta Mankomunitateko Estatutoak
3. Ordenantza
 - o Orain arte landu dena begiratu (egindako ekarpenak urdinez daude)
 - o 3. Titulua eta 4. Tituluaren lanketa (Etxeko konpostajerako eta auzo-konpostajerako arauak)

Aurreko aktaren onarpena

Azaroko akta onartutzat ematen da.

Sasietako Estatutuak

TEKNIKARIA: Ordizia Orainek Sasietako estatutuak hondakin mahaira ekarri zituen lantzeko eta ekarpenak egiteko.

Data batzuk zehaztu genituen, abenduak 11rako ekarpenak egiteko epea jarri genuen eta nik abenduaren 12an Sasietara bidali nituen ekarpenak. Gure proposamena abenduaren 14an bilera bat egitea izan zen. Inongo erantzunik ez dugu jaso.

Ordizia Orain eta Bilduko zinegotziak dira Ordiziako ordezkariak Sasietan eta gaurko bileran beraien presentzia espero nuen abenduaren 18an Sasietan egin zen bileraren inguruko informazioa jasotzeko.

Aurretik bidali zituzten estatutuak eta Sasietako bileran onartu direnak berdinak dira, gure ekarpenak ez daude sartuta.

Abenduaren 18an Sasietako bileran Sasietako estatutuak onartu ziren.

EAJ: Uste dut abenduaren 18ko bilerara Ordiziako ordezkariak ez zirela joan.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/01/23 Udaletxean 18.00-19:30



TEKNIKARIA: Estatutuak onartu dira Sasietan eta orain Udal bakoitzak herritarren eskura jarri behar ditu. Hilabeteko epea dago edozein alegazio egiteko eta ondoren, dokumentu definitiboa Sasietan Mankomunitateko Udal guztietako plenoetan onartu behar da.

EAJ: Alegazio fasean, Sasietako idazkariarekin bilera bat egitea proposatu dezakegu.

TEKNIKARIA: Hondakin mahaiaren izenean bilera bat egitea proposatuko dugu eta gure proposamenak alegazio bezala sartuko ditugu.

Landarlaneko Edurne berandugo etorri da eta berriro gai hau landu dugu.

LANDARLAN: 7. artikuluan gure ekarpena jarri dute, hau da, hondakinen murrizketa zehaztu dute.

Testua aztertzen egon gara eta guk egindako ekarpena ez dute jarri.

TEKNIKARIA: Gure ekarpenak ez dira kontutan hartu.

Ordiziako ordenantza

ORAIN ARTE LANDU DENA

TEKNIKARIA: Lehenengo aurretik egindako ekarpenak landuko ditugu eta ondoren, 3. eta 4. tituluak, auzokonposta eta autokonpostako tituluak, landuko ditugu.

Testu ezberdinetan moldaketak egin dira, era egokiagoan idatziz.

EAJ: Hainbat bileretan esan dut eta nire ustetan Zerbitzuburuaren presentzia beharrezkoa da mahai honetako bileretan, gaiaren inguruan duen ezagutzagatik, kaleko hondakinen bilketan.

TEKNIKARIA: Tolosako Udalak kale garbiketako ordenantza bat dauka eta nik mahai honetara ekarri nuen baina bi ordenantzak batera lan egitea ez zen onartu. Gainera, Tolosako ordenantzan gai asko tratatzen ziren eta horietako batzuk ez ziren hondakinena.

JOSEBA: Edukiontzien jarraipena orain berak ez du egiten, Jon Eskisabel aparejadoreak egiten du.

EAJ: Ordun aparejadoreak hemen egon beharko luke.

TEKNIKARIA: 6. artikuluan nik Udalak hondakinen prebentzio plan bat egingo duela zehaztu dut. Agian, ordenantza egin eta gero guk plan hau landu dezakegu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/01/23 Udaletxean 18.00-19:30



JOSEBA: Merkataritzako sortzaile txikiak edukiontzia erabiltzeko aukera daukate. Lehen ezin zituzten erabili, bi aukerak dituzte, atez-ate bildu edo edukiontzira atera.

LANDARLAN: Edukiontzi horirako Sasietako gidan zehaztutako material guztiak jarri beharko dira.

TEKNIKARIA: Sasietako edukiontzi horiaren gidan zehazten diren materialak atera behar direla jarriko dugu.

3. eta 4. ARTIKULUAK: AUTOKONPOSTA ETA AUZOKONPOSTA

TEKNIKARIA: Autokonpostan bakoitzak zer bota konpostagailura erabakitzen utzi egiten du eta Sasietak bultzatzen du biohondakin guztiak konpostatzea.

NEKANE: Bakoitzak egiten duen konposta zenbat izan den jakin honela, kantitate honen arabera hobaria ematen zaio.

TEKNIKARIA: Autokonposta eta auzokonposta egiten duenari hobaria aplikatzen zaio, organikoa sistematik ateratzen baitu.

TEKNIKARIA: Konpostan parte hartzen duenak ere 5. edukiontzia irekitzeko aukera du txartelaren bidez.

EAJ: Konposta egiteko eta 5. edukiontzia erabiltzeko aukera dago.

LANDARLAN: Konposta egiten duenari hobaria aplikatzen zaio baina edukiontzia erabileran hau kontrolatu egin behar da.

EAJ: Sasietak kontrolatu egiten du, Sasietak organikoaren edukiontzia zenbat alditan irekitzen den begiratzen du.

Hurrengo bileran 4. artikuluekin jarraituko dugu.

Hurrengo bilera

Martxoaren 6an, arratsaldeko 18:00etan.